

**626/2023 EBAZPENA, 2023ko martxoaren 27an**, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketako errektoreordeak emana, zeinaren bidez onesten baita deialdia 2022-2023 ikasturtean Nafarroako Unibertsitate Publikoko “Unibertsitateko Aditua Familia Enpresaren Kudeaketan” titulu berekian egindako eta defendatutako amaierako lan hoberenentzako hiru sari emateko.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Enpresa Familiarren Katedra Nafarroako Familia Enpresaren garapenerako Elkaratearen (ADEFAN), Nafarroako Unibertsitate Publikoaren, Familia Enpresa Institutuaren, ARPA Abogados Consultores aholkularitza-enpresarekin eta SONAGAREN arteko lankidetzaren tresna da, eta bere xedea da familia enpresari lotutako arloetan ezagutza teorikoa eta praktikoa sortzen, eskura jartzen eta zabaltzen laguntzea, enpresa horiek gure gizartearen garapen eta ongizate ekonomikorako funtsezko tresnak baitira.

Hori horrela, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Enpresa Familiarren Katedraren Segimendu Batzorde Mistoak, 2023. urterako jardura programaren barnean, erabaki zuen 2022-2023 ikasturtean Nafarroako Unibertsitate Publikoko “Unibertsitateko Aditua Familia Enpresaren Kudeaketan” titulu berekian ikasleek egindako eta defendatutako amaierako lan hoberenentzako hiru sari emateko deialdiaren oinarriak onestea.

Ikusirik Nafarroako Unibertsitate Publikoko Enpresa Familiarren Katedraren Segimendu Batzorde Mistoak egin duen proposamena eta akta.

Ikusirik Unibertsitateko Zerbitzu Juridikoak egin duen txostena.

Ikusirik Kontabilitate Atalak egindako kreditu-erreserbaren ziurtagiria eta zerga-tratamenduari buruzko txostena.

Kontuak ikuskaturik eta aldeko fiskalizazioa eginik.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak 2019ko uztailaren 3an emandako 1420/2019 Ebazpenaren bidez ematen dizkidan eskudantziak erabiliz.

## **EBAZTEN DUT**

**Lehen.**- Onestea 2022-2023 ikasturtean Nafarroako Unibertsitate Publikoko “Unibertsitateko Aditua Familia Enpresaren Kudeaketan” titulu berekian egindako eta defendatutako amaierako lan hoberenentzako hiru sari emateko deialdia, ebazpen honen eranskinetako oinarrien arabera.

**Bigarrena.**- Baimena ematea deialdi honek sortutako gastua egiteko. 600,00 eurokoa izanen da gehienez gastua, sarietarako baliatuko da, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Enpresa Familiarren Katedraren aurrekontuaren bidez finantzatuko da.

Sorturiko gastua Nafarroako Unibertsitate Publikoak 2023ko ekitaldirako duen Gastuen Aurrekontuetako partida honen kargura ordainduko da:

30.30.00.8325 480.25 Katedren sariak 600,00 €

**Hirugarrena.-** Honako sari hauek emanen dira:

- Lehen saria, 300,00 eurokoa, Ikasketa Amaierako Lan hoberenarentzat
- Bigarren saria, 200,00 eurokoa
- Hirugarren saria, 100,00 eurokoa

PFEZari dagokionez, saria laneko errendimendutzat hartzen da, eta, beraz, Unibertsitateak % 15eko atxikipena egingen du. Ez da derrigorrezkoa dirua kontuan sartzea baldin eta sariaren kostua 300 euro baino handiagoa ez bada.

**Laugarrena.-** Ebazpen hau helaraztea Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Enpresa Familiarren Katedrari, Aurrekontuen eta Plangintza Ekonomikoaren Atalari, Kontabilitate Atalari, Ikerketa Zerbitzuari, Ikerketako errektoreordeari eta Kontu-hartzailetzari.

**Bosgarrena.-** Ebazpen hau Enpresa Familiarren Katedraren webgunean (<https://www.unavarra.es/catedra-empresa-familiar>) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki-ohol elektronikoan argitara dadila agintzea.

**Seigarrena.-** Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka zilegi da berraztertze errekurtsoa jartzea errektoreari zuzendua hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Nafarroako administrazioarekiko Auzietako Epaitegian bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Iruñean, 2023ko martxoaren 27an



Francisco Javier Arregui San Martín  
Ikerketako errektoreordea

**“UNIBERTSITATEKO ADITUA FAMILIA ENPRESAREN KUDEAKETAN” NUP-  
EKO TITULU BEREKIAREN AMAIERAKO LAN HOBERENENTZAKO SARIEN IV.  
EDIZIOA**

**NUP-EKO ENPRESA FAMILIARREN KATEDRAREN DEIALDIA**

Eranskina, 2023ko martxoaren 27an 623/2023 Ebazpenarena

Nafarroako Unibertsitate Publikoak, ADEFANekin, Familia Enpresa Institutuarekin, ARPA Abogados Consultores enpresarekin eta Sonagarrekin lankidetzan (Enpresa Familiarren Katedra osatzen duten entitateak), beharrezkotzat jotzen du ezagutza teorikoa eta praktikoa sortu, eskura jarri eta zabaltzea enpresa familiarrari lotutako arloetan, enpresa horiek gure gizartearen garapen eta ongizate ekonomikorako funtsezko tresnak baitira.

Alde horretatik, Enpresa Familiarren Katedrak, NUPeko Unibertsitate - Gizarte Fundazioarekin batera, “Unibertsitateko Aditua Familia Enpresaren Kudeaketan” titulu berekia garatu du, eta bere ikasketa planak barnean hartzen du 2,6 ECTS kredituren baliokidea den amaierako lan bat egitea. Alde horretatik, Katedraren Segimendu Batzorde Mistoak erabaki du 2022-2023 ikasturtean titulu horretan matrikulatutako ikasleek egindako eta defendatutako amaierako lan hoberenentzako hiru sarirako deialdia egitea.

Horiek horrela, Enpresa Familiarren Katedrako Segimendu Batzorde Mistoak deialdi hau egiten du.

**1.- Deialdiaren xedea.**

Deialdiaren xedea da 2022-2023 ikasturtean “Unibertsitate Aditua Familia Enpresaren Kudeaketan” Nafarroako Unibertsitate Publikoko titulu berekian matrikulatutako ikasleek egin eta defendatutako amaierako lan hoberenei hiru sari emateko prozedura arautzea, publizitatearen, objektibotasunaren eta norgehiagokaren printzipioen arabera.

**2.- Finantzaketa.**

Deialdi honek 600,00 euroko aurrekontua du guztira. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2023ko gastuen aurrekontuko 30.30.00.8325 480.25 Katedren Sariak izeneko partidaren kargura ordainduko dira.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Enpresa Familiarren Katedrak jarriko du zenbateko hori.

**3.- Deialdiko sariak.**

2022-2023 ikasturtean “Unibertsitate Aditua Familia Enpresaren Kudeaketan” Nafarroako Unibertsitate Publikoko titulu berekian matrikulatutako ikasleek egin eta defendatutako amaierako lan hoberenentzako sari hauetarako deialdia egin da.

- Sari nagusia: 300,00 euro

- Bigarren saria, 200,00 eurokoa
- Hirugarren saria, 100,00 eurokoa

PFEZari dagokionez, saria laneko errendimendutzat hartzen da, eta, beraz, Unibertsitateak % 15eko atxikipena egingen du. Ez da derrigorrezkoa dirua kontuan sartzea baldin eta sariaren kostua 300 euro baino handiagoa ez bada.

#### **4.- Hautagai izateko baldintzak.**

Deialdian parte hartzen ahalko dute 2022-2023 ikasturtean “Unibertsitate Aditua Familia Enpresaren Kudeaketan” NUPeko titulu berekian matrikulatu diren eta aipatu tituluko amaierako lana egin duten ikasleek.

#### **5.- Hautagaitzak aurkezteko modua.**

Sariketara aurkezten direnek inprimaki normalizatu baten bidez formalizatu beharko dute eskaera (esteka honetan dago eskuragarri: [Eskaeraren formularioa](#)), eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren erregistro elektronikoan aurkeztu beharko dute, unibertsitatearen egoitza elektronikoaren bitartez:

Horretaz gainera, mezu elektronikoa bidali behar dute [catedra.empresafamiliar@unavarra.es](mailto:catedra.empresafamiliar@unavarra.es) helbide elektronikora, hautagaitzak aurkezteko epea amaitu baino lehen, eta gaian “IAL sariak-Enpresa Familiarren Katedra” jarri behar dute, hautagaiaren izen-deiturekin, eta dokumentazio hau erantsirik:

- “Unibertsitate Aditua Familia Enpresaren Kudeaketan” titulu berekiko amaierako lana

Alegazioak aurkezteko epea apirilaren 28an bukatuko da, 14:00etan.

#### **6.- Saridunen betebeharrak**

1. Saridunak nahieran erabiltzen ahalko du jasoko duen diru kopurua.
2. PFEZari dagokionez, saria laneko errendimendutzat hartzen da, eta, beraz, Unibertsitateak % 15eko atxikipena egingen du. Ez da derrigorrezkoa dirua kontuan sartzea baldin eta sariaren kostua 300 euro baino handiagoa ez bada.
3. Deialdiko oinarriak bete ezean, edo datuak ezkutatu, aldatu edo haietan iruzur egiten bada, zilegi izanen da saria kentzea. Hala gertatzen denean, dirua itzuli beharko du interesdunak.
4. Lehiaketan parte hartzeak deialdiko oinarrien eduki guztia onartzea dakar berekin. Horien aplikazioan sortzen den edozein gorabehera Nafarroako Unibertsitate Publikoko Enpresa Familiarren Katedraren Segimendu Batzorde Mistoak ebatziko du.

#### **7.- Sariaren epaimahaia.**

Hauek dira sariak emanen dituen epaimahaia osatuko duten bost kideak:

- Lucía Garcés, Enpresa Familiarren Katedraren zuzendaria, edo hark eskuordetutako pertsona.
- Beatriz Rodríguez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea, edo hark eskuordetutako pertsona.
- Francisco Esparza Unsain, ADEFANeko lehendakaria, edo hark eskuordetutako pertsona.
- José Antonio Arrieta, ARPako zuzendaria, edo hark eskuordetutako pertsona.
- Pablo Cámara, SONAGAREko zuzendaria, edo hark eskuordetutako pertsona.

Enpresa Familiarren Katedrako zuzendariak eskatuta eratuko da epaimahaia, eta, horretarako, dei egingen die epaimahaikideei. Halaber, Katedrak behar diren kudeaketa-lanak egingen ditu epaimahaiaren jarduna errazteko.

### **8.- Sariaren esleipena.**

Epaimahaiak honako irizpide hauek hartuko ditu aintzat proposamenak baloratzekoan:

- Originaltasuna eta sakontasuna lanaren xedea den gaia aztertzeko.
- Ondorio praktikoak eta ikerketarako ekarpena.

Epaimahaiak Unibertsitateko Ikerketako errektoreordeari bidaliko dio sariak emateko proposamena, eta hark dagokion ebazpena emanen du. Ebazpenean saritutako lanak besterik ez da jasoko.

Saria eman gabe utz daiteke epaimahaiaren iritzia arabera.

Ikerketako errektoreordearen behin betiko esleipen-ebazpenaren aurka zilegi da berraztertzeko errekurtsua aurkeztea errektoreari zuzendua hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua Nafarroako administrazioarekiko auzien epaitegietan bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Ekitaldi publikoa egingen da saria emateko.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Enpresa Familiarren Katedrak emanen du ezagutzera sarien behin betiko esleipenaren ebazpena, sariak emateko ekitaldi publikoa izan baino lehenago.

### **9.- Datuen babesa.**

Parte-hartzaileek deialdi honetan ematen dituzten datu pertsonalak arau hauen arabera tratatuko dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduaren gaitan pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; eta 3/2018 Lege Organikoa, 2018ko abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Aurkeztutako eskabidearen datuak, identifikazio eta harremanetarako datuak, lan akademikoak duen informazioa, eta dagokion ordainketa egiteko datu ekonomikoak tratatuko ditu NUPek,

tratamenduaren arduradun modura, bikaintasun akademikoa zabaltzeko interes publikoko misioarekin bat etorriz (Datu pertsonalen tratamenduaren gaietan pertsona fisikoak babesteari buruzko Erregelamenduaren 6.1.c artikulua). Halaber, lan akademikoen balorazioari buruzko datuak ADEFANeko, ARPAko eta SONAGAREko ordezkariak ere tratatuko dituzte. Erakunde horiek, puntu horretan, aipatutako datuen tratamenduaren ardurakideak izanen dira.

Azkenik, aditzera ematen da deialdi honetan parte hartzeak berarekin dakarrela identitate, ahots, irudi, adierazpen eta ezagutzako datuak tratatzea, aurkezten duen hiru minutuko bideoan adierazitakoak. Bideoa argitaratu egingen da webean, sare sozialetan eta Interneten. Kentzeko edozein eskaera aztertuko da informazio hori kontuan hartuta, eta eskaera horri emandako erantzuna, hala badagokio, teknologikoki arrazoizkoak diren ahaleginetara mugatu behar da.

#### **10.- Argitalpena.**

Deialdi honen oinarriak eta hura aplikatzeko gainerako ekintzak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Enpresa Familiarren Katedraren webgunean eta iragarki-ohol elektronikoan argitaratuko dira. Halaber, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Enpresa Familiarren Katedra arduratuko da oinarriak zabaltzeaz.

Bitarteko horiek izanen dira Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Enpresa Familiarren Katedrak onartutako publizitate tresna bakarra; nolana ere, baliteke interesdunei posta elektronikoaren bidez jakinarazpen bat bidaltzea modu osagarri eta ez-ofizialean.

#### **11.- Errekurtsoak.**

Interesdunek, deialdi honen eta bere oinarrien aurka, berraztertzeko errekurtsoa jartzen ahal dute, hilabeteko epean Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreari zuzendua, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa maila bereko Nafarroako epaitegietan, bi hilabeteko epean, biak ere argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.